

Enuntziatu parentetikoak eta modalizazioa Eusko Legebiltzarreko euskarazko esku-hartzeetan

Claudia María Torralba-Rubinos
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Artikulu honen helburua da euskarazko ahozko diskurtso formalaren funtzionamenduaren nondik norakoak ezaugarritzen jarraitzea, oinarrian testu idatzia duten Eusko Legebiltzarreko 30 esku-hartzetan enuntziatu parentetikoak eta horien bitartez gauzatzen diren modalizazioak kuantitatiboki eta kualitatiboki aztertuta. Azterketarako erabilitako ereduak interakzionismo soziodiskurtsiboa (ISD) eta testuaren arkitektura izan dira. Emaitzek erakusten dute enuntziatu parentetikoak maiz agertzen direla hizlarien ahozkoetan eta enuntziatu parentetiko guztiek bideratzen dutela gutxienez modalizazio mota bat. Modalizazio moten artean modalizazio apreziatiboa gailentzen da, eta testu-generoari lotutako erregularitasuna izan daiteke hori. Ondorio nagusia da ahozkoan enuntziatu parentetikoak txertatzea estrategia diskurtsibo-pragmatiko eraginkorra dela diskurtsoa modalizatzeko, eta, beraz, oinarrian testu idatzia duten diskurtso formalen azterketan oso kontuan hartzeko elementuak direla enuntziatu parentetikoak.

GAKO-HITZAK: Enuntziatu parentetikoak · Modalizazioa · Ahozkotasuna · Euskara.

Parenthetical utterances and modalisation in the interventions that were delivered in Basque at the Basque Parliament

The aim of this article is to further characterise the functioning of formal oral discourse in Basque, analysing quantitatively and qualitatively the parental utterances and the modalisations they convey in 30 speeches that were delivered at the Basque Parliament based on a written text. The models used for the analysis were sociodiscursive interactionism (SDI) and textual architecture. The results show that parenthetical utterances appear frequently in the speakers' speeches and that all parenthetical utterances convey at least one type of modalisation. Among the modalisation types, the appreciative modality stands out, which may be the regularity associated with textual genre. The main conclusion is that the inclusion of parenthetical utterances in speech is an effective discourse-pragmatic strategy for the modalisation of discourse, and therefore, that parenthetical utterances are elements to be considered in the analysis of formal discourses that are based on written texts.

KEY WORDS: Parenthetical utterances · Modalisation · Orality · Basque.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5206>

Jasotze-data: 2025-01-30 *Onartze-data:* 2025-02-20

1. Sarrera

Lan honen helburu orokorra euskarazko ahozko diskurtso formalaren funtzionamendua hobeto ezagutzeko urratsak ematen jarraitzea da, euskarazko diskurtso politikoari erreparatuta. Horretarako, Eusko Legebiltzarreko esku-hartzeetan eta diskurtso-estrategia pragmatiko zehatz batean jarri dugu arreta: enuntziatu parentetikoetan. Gauzak horrela, gure helburu zehatza da enuntziatu parentetikoek diskurtsoa nola modalizatzen duten erakustea, ahozko corpus erreal batetik ateratako adibideen bidez. Horretarako, ibilbide hau egingo dugu:

- a. Hasteko, marko teorikoari helduko diogu, gaia eta kontzeptuak kokatu eta zedarritzeko. Horretarako, parlamentuko debatarei eta esku-hartzeari testuaren ikuspegitik erreparatuko diegu lehenik. Gero, modalizazioan sakonduko dugu, eta, azkenik, enuntziatu parentetikoak zer diren eta parlamentuko esku-hartzeetan nola eta zertarako erabiltzen diren argitzen saiatuko gara.
- b. Jarraian, bildutako corpora deskribatu eta egindako analisiaren nondik norakoen berri emango dugu.
- c. Ondoren, analisi kuantitatiboen emaitzak aurkeztu eta modalizazio mota ezberdinak bideratzen dituzten enuntziatu parentetikoaren adibide zenbait aztertu eta azaltzen saiatuko gara.
- d. Eta, azkenik, enuntziatu parentetikoaren erabilera diskurtsoa modalizatzeko estrategia pragmatiko emankorra dela argudiatuko dugu, adibide errealean analisitik abiatuta.

2. Marko teorikoa

Testuinguruaren arabera hizkuntzaren erabilerak dauzkan ezaugarri pragmatiko bereziak ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da hizkuntza-ekoizpen enpirikoak aztertzea testu- eta diskurtso-analisietan. Gehiegi pentsatu gabe, «testu» deitzen diegu sarritan ahozko edo idatzizko ekoizpen enpiriko horiei, baina nola definitzen da «testua»? Zein dira haren ezaugarriak?

Bronckart-en (1996/2022) eta Larringanen (2008) arabera, testuinguru jakin bateko ekoizpen-baldintza zehatzei erantzuten dien ahozko edo idatzizko berbazko ekoizpen enpiriko, indibidual, autonomo eta bakarra da testua, eta komunikazio-egoera jakin baten arabera ekoizleak hartzen dituen erabakien markak ditu. Horrenbestez, ezinbestekoa da ekoizpen bakoitzari komunikazio-egoera errealean gertatu den bezala erreparatzea, testuinguru komunikatibo horretan, eta soilik horretan, uler baitaiteke bere osotasunean. Ikuspegi horretatik, testua komunikazio-unitatea ere bada, hartzailearengan efektu zehatz bat sortzeko helburuarekin ekoizten baitu igorleak, ekoitzi duen asmo eta intentzio berberarekin interpreta dezan.

Lan honetan, Eusko Legebiltzarreko debateak —eta, zehatzago esanda, debate horietako esku-hartzeak— izango ditugu aztergai. Schäffner-en (1997) eta Van Dijk-

en (2001) arabera, parlamentuko debatea diskurtso politikoaren azpigerotzat har daiteke. Erregelamendu bidez araututa dago (Pérez Serrano, 2018; Romero, 2018), eta horrek erabat baldintzatzen du ekintza komunikatiboa; izan ere, erregelamendu horretan zehazten da nork, noiz, nola, zeri buruz eta zenbat denboraz hitz egin dezakeen. Nolabait esateko, jokoaren arauak alde aurretik ezarrita daude. Edonola ere, oso testuinguru polarizatu eta interaktiboan gauzatzen da, eta momentuan eta elkarlanean eraiki behar dute debateko parte-hartzaileek, debate horrek zentzua izango badu.

Aipatu beharreko beste ezaugarri bat da mota horretako debateek ondo bereizitako bi hartzaile izaten dituztela: batetik, aretoan bertan fisikoki presente dauden politikariak eta, bestetik, debatearen berri komunikabideen bidez jasotzen duten hautesleak edo herritarak (Van Dijk, 2001). Horregatik, igorleen eta hartzaileen helburuak eta interakzioaren helburuak ez datoz beti bat (Van Dijk eta Rodrigo-Mendizabal, 1999). Hori horrela da, hain zuzen, igorleak politikariak direlako eta debatetik haratago doazen bestelako helburu pertsonal eta profesionalak izan ditzaketelako beren hitzaldiak egiterakoan.

Illo horretan, Van Dijkek (2001) «ekintza globalez» eta «ekintza lokalez» hitz egiten du. Ekintza global horien artean sartuko lirateke, adibidez, hautesleak ordezkatzeta, herrialdea gobernatzea, gobernu kritikatzea, politika egitea... Ostera, ekintza lokalen artean sailkatzen ditu erabakiak hartzea, autopromozioa egitea, dirua irabaztea... Interakzioaren helburuaren ikuspegitik, aldiz, Garrok (2008) azaltzen du debatean gertatzen den interakzioaren helburua elkarri eraginez ikuspegi edo «egia» handiago batera iristea dela. Horretarako, beren posizioak eta iritziak defendatu behar dituzte, eta hortxe hartzen du garrantzi berezia modalizazioak.

Izan ere, modalizazioa igorleak bere ekoizpenean uzten duen arrastoa edo aztarna da, hau da, esandakoarekin benetan esan nahi duena esateko uzten duen marka. Bronckarten (1996/2002) testuaren arkitekturaren ereduan, hizkuntzaren dimentsiorik pragmatikoenari erantzuten dio, eta interakzio komunikatiboari lotuta dago, igorleak esan duenarekiko duen jarreraren isla delako. Zentzu horretan, erantzukizun enuntziatiboari lotutako mekanismoa da, eta igorlearen subjektibotasunaren berri ematen du, bi zentzutik: alde batetik, igorlearen asmoak, iritziak eta posizionamenduak ezagutzeta ahalbidetzen du, eta, bestetik, hartzaileak diskurtsoa nola interpretatu behar duen jakiteko pistak ere ematen ditu.

Edonola ere, mekanismo konfigurazionala da, eta ez du figura isotopikorik osatzen. Gainera, ez du forma gramatikal jakinik hartzen, askotariko hizkuntza-unitateen eta hizkuntza-unitateen multzoen bidez gauzatu baitaiteke, adibidez: aditzaren aspektua eta modua, adjektiboak, adberbioak, esaldi inpersonalak, moduzko perpausak, birformulazioak, galdera erretorikoak... *Euskararen Gramatikan* (Euskaltzaindia, 2021) «modalitatea adierazteko bidez» hitz egiten da, eta beren-beregi aitortzen da modu askotara adieraz daitekeela: «Modalitatea adierazteko (aspektua adierazteko bezalatsu), hainbat bide baliatzen ditu hizkuntza bakoitzak, lexikoak, morfosintaktikoak zein prosodikoak». Horregatik, batzuetan zaila da modalizazioa identifikatzeta eta mugatzeta.

Bronckartek (1996/2022) lau modalizazio mota bereizten ditu:

- Deontikoa: arau sozialetan oinarritutako ebaluazio eta iritzien berri ematen du (derrigortasuna, debekua, aukera...)
- Logikoa: egitasun-baldintzetan oinarrituta dago, eta igorlearen ikuspegi esplizitua adierazten du (ziurra, frogatua, zalantzazkoa, posiblea, gertagarria...)
- Apreziatiboa: igorlearen ikuspegi eta iritzi pertsonala transmititzen du (arraroa, bikaina, kaltegarria...)
- Pragmatikoa: pertsonaia batek agente den prozesu batean duen erantzukizunari buruzko judizioa ematen du (egiteko daukan gaitasuna, egiteko daukan intentzioa eta egiteko daukan arrazoiak).

Aurretik azaldu bezala, lan honetan enuntziatu parentetikoetan da arreta, estuki lotuta baitaude diskurtsoaren modalizazioarekin eta igorleak duen intentzioarekin. Izan ere, Azpeitiaren (2010b, 26. or.) hitzetan, «esatariak bere asmoak erdiesteko norentzakoari egiten dizkion keinu eta arrastoak dira, testutik bertatik mezuaren interpretazioa (nora)bidetu eta gidatzeko erabiltzen dituenak». Dena den, forma ugari har ditzake keinu edo arrasto horrek, aurretik aipatu bezala. Beraz, errazena Eusko Legebiltzarreko corpusetik ateratako adibide erreal batetik abiatzea izango da, enuntziatu parentetikoak ezaugarritzeko:

- (1) Eta lehen zuei esan dizuet zuen buruak irudikatzeko gazteak zinetenean, ze batzuk hemen orduko pertzepzioak eta grinak, **pasioa ez esateagatik**, galduak izango dituzue dagoeneko.

Goiko adibidetik ondoriozta daitekeenez, ezaugarri hauek ditu enuntziatu parentetikoak:

- Beste enuntziatu batean (aurrerantzean, oinarri-enuntziatua) txertatzen den enuntziatu osoa da.
- Sintaktikoki, semantikoki eta intonatiboki independentea da, eta aurreko enuntziatuaren linealtasun sintaktikoa hausten du.
- Etenen artean agertzen da.
- Informazio itxuraz espontaneo eta ez-planifikatua, baina garrantzitsua, ematen du.
- Esataria bikoiztu egiten da, eta bere diskurtsoaren gaineko iruzkinak egiten ditu, hartzaileen interpretazioa bideratzeko.

Illo horretan, aipatzekoa da enuntziatu parentetikoak ez direla edonon eta edonoiz erabiltzen, baizik eta modu estrategikoan (Azpetia, 2011: 797):

Esatariaren helburua bere intentzio-xedea norentzakoak atzematea da eta horretarako ahalegin guztiak egingo ditu, norentzakoarekin konplizitatezko harremana sortzeaz gain, bere enuntziatua modalizatu, birformulatu eta testuinguratzen, harik

eta esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean zirrikiturik txikiena ere egon ez dadin eta diskurtsoaren argudio-hariak eta interpretazioak esatariak nahiko zukeen bidetik jarrai dezaten.

Horren harira, Blakemore-k (2005, 2006) esplizituki dio parentetikoei buruz ekoizten diren testuinguruan bakarrik interpreta daitezkeela, eta, ondorioz, interakzio komunikatiboari oso lotuta daudela. Helburu jakin batekin txertatzen ditu igorleak bere diskurtsoan une eta momentu jakin batean, eta hori are nabarmenagoa da ahozko ekoizpenetan, ez baitago esandakoa birpentsatu eta aldatzeko aukerarik, ezta esandakoa ezabatu eta atzera egiteko aukerarik ere (Tusón eta Calsamiglia, 1999).

1. adibidea irakurrita, esaterako, hartzailleak azkar identifikatzen du Eusko Legebiltzarreko politikari gehienak helduak direla eta aspaldi galdu zituztela gaztetasuneko sentimendua eta indarra. Testuingurutik ateratako adibidea da, baina esku-hartze osoa irakurri beharko litzateke iruzkin horrek dauzkan konnotazioak ulertzeko; izan ere, hizlaria gazteek etxebizitza duinak eskuratzeko dituzten arazoei eta zailtasunei buruz ari den parlamentari gaztea da, parlamentari guztien artean gazteena.

Hala ere, kontuan hartu behar da idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko muga ez dela zurruna, eta «continuum» bat dagoela bataren eta bestearen artean, hainbat autorek argudiatu dutenez (Koch eta Oesterreicher, [1990] 2007; Gadet, 1996; Bustos, 1997, eta abar). Koch eta Oesterreicher-en (1990 [2007]) ereduari jarraikiz, transmisiorako kanala dikotomikoa da —ahozkoa edo idatzizkoa—, baina kontzepzioan eskala edo gradazio bat dago. Eskala horren mutur batean «berehalakotasun komunikatiboa» dago (ahozko «purua») eta bestean «distantzia komunikatiboa» (idatzizko «purua»). Beraz, eredu horri jarraikiz, testu-generoak idatzizko eta ahozko «puruetatik» «gertu» edo «urrun» egon daitezke.

Lan honetan aztergai ditugun testuak ahozko ekoizpenak dira, zalantzarik gabe, kanalari erreparatuta, baina, ahozkoak izanik ere, idatzizkotik gertu daude, ez baitira bat-batean inprobisatutako ahozko espontaneoak, baizik eta alde zuzenetik idatzitako testuetan oinarritutakoak. Hortaz, esan daiteke kanal fonikoa eta idatzizko kontzepzioa edo distantzia komunikatiboa konbinatzen dituzten «hibridoak» (Calvo-Rigual eta Spinolo, 2016) direla.

Fuentes Rodríguez-ek (1999) Andaluziako Parlamentuan esku-hartzeetan aztertu zituen enuntziatu parentetikoak gaztelaniaz, eta ondorioztatu zuen oso maiz agertzen zirela mota horretako ahozko ekoizpenetan, testuinguru horretan, aurretiaz prestatutako idatzizko testuen irakurketa partziala egin eta ahozkoan aldatetarik txertatzen direlako idatzizko testua ahoz esatean. Horrenbestez, Eusko Legebiltzarreko euskarazko esku-hartzeetan izan ditugu guk aztergai, euskarazko parlamentuko esku-hartzeetan ere enuntziatu parentetikoaren agerpena ohikoa den eta modu berean erabiltzen diren ikusteko.

Dena den, ez da hau euskarazko enuntziatu parentetikoak aztertzen diren lehen aldia. Azpeitiak (2010a, 2012) Koldo Mitxelena-aren zinema- eta liburu-kritiketan aztertu zituen, eta hark ere ondorioztatu zuen enuntziatu parentetikoak

estrategikoki erabili zituela, besteak beste, Mitxelenak idatzizkoan ahozotasuna islatzeko. Horrenbestez, badirudi Eusko Legebiltzarreko esku-hartzeetan erabiltzen diren enuntziatu parentetikoan azterketa euskarazko ahozko diskurtso formalaren funtzionamendua nolakoa den jakiteko baliagarria izateaz gain, idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko harremana hobeto ulertzeko ere lagungarria izan daitekeela.

3. Metodologia

Eusko Legebiltzarreko euskarazko esku-hartzeetan enuntziatu parentetikoak agertzen diren ala ez konprobatzeko, eta, agertzekotan, hizlariak nola eta zertarako erabiltzen dituzten jakiteko, 30 esku-hartzeko corpus bat bildu dugu, ahozko diskurtsoak erdi automatikoki transkribatuta.

3.1. Corpusaren deskribapena

Lagin errealak dira guztiak, 2019 eta 2021 arteko osoko bilkuretan 15 hizlarik euskaraz ekoiztutakoak. Hala ere, aitortu beharrekoa da ezberdintasun nabarmenak ere badaudela lagin batetik bestera. Hainbat motatako esku-hartzeak dira (ikus Eusko Legebiltzarreko Erregelamendu Kontsolidatua, 2021), egun eta debate ezberdinetan ekoiztutakoak eta gai ezberdinei buruzkoak.

Guztira 5 ordu eta 2 minutuko iraupena dute bildutako grabazioek, eta Eusko Legebiltzarren webgunean eskegitako bideo publikoetatik abiatuta egin dira transkripzioak. 30 lagin horietatik 22 elebidunak dira, eta 8 elebakarrak (euskaraz). Horrek berekin dakar lagin gehienetan euskara eta gaztelania txandakatu egiten direla, baina ez neurri berean. Zehazki, 48.543 hitz transkribatu dira guztira, 34.511 euskaraz eta 13.992 gaztelaniaz. Iraupenaren aldetik ere aldakorrak dira laginak, esku-hartze mota zein den. Kasu honetan, esku-hartzerik luzeenak 28 minutu eta 1 segundoko iraupena du, eta laburrenak, aldiz, 2 minutu eta 44 segundokoa.

Laginen aniztasuna bilketarako erabilitako irizpideen eta prozeduraren ondorioa da. Izan ere, lan hau testuarekiko aldibereko interpretazioa aztertzea helburu duen ikerketa zabalago baten parte da, eta laginak biltzeko ezinbesteko baldintza zen interpreteek alde aurretik testu idatzia eskuratu eta gorde izana. COVID-19aren pandemia-garaia tartean, lagin-bilketa egitea zaila izan zen, eta laginen artean homogeneotasun handiagoa bermatzea, ezinezkoa. Hala ere, uste dugu bildutako laginek konparagarriak izateko gutxieneko baldintzak biltzen dituztela.

3.2. Analisiaren deskribapena

Lehenik eta behin, bideoetako hitzaldien transkripzio erdi automatikoa egin zen, Elhuyarren ADITU hizketa-ezagutzailearen bidez. Transkripzio automatiko horiek arretaz gainbegiratu eta berrikusi behar izan genituen, akatsak eta gaizki transkribatutakoak zuzentzeko.

Hurrengo urratsa enuntziatu parentetikoak identifikatzea izan zen. Eskuz eta banan-banan egin beharreko lana izan zen hori; izan ere, ez dago corpuseko

enuntziatu parentetiko guztiak modu automatikoan identifikatzeko balio duen irizpide gramatikalik, lehenago ere aipatu den bezala.

Enuntziatu parentetiko guztiek partekatzen duten ezaugarri formal bakarra da etenen artean agertzen direla, baina eten horiek hainbat modutara markatu daitezke idatzizko testuetan. Azpetiak eta Pérez Gazteluk (2014a) azaltzen dute idatzizko testuetan bigarren mailako puntuazio-markak erabiltzen direla horretarako; hau da, intzisoko bi komak, marrak nahiz parentesiak. Marrak eta parentesiak erraz identifika daitezke automatikoki corpusean, baina koma arazo-iturri handia da, perpaus barneko puntuazio nagusia izanik (Euskaltzaindia, 2018), enuntziatu parentetikoez gain, hauek guztiak eta beste batzuk ere bereizten dituelako: esaldian elkarri lotuta dauden hiru osagai edo gehiago, enumerazio bateko osagaiak, bokatiboa, aposizioa, esaldiaren osagai diren tartekiak, mintzagaia, lokailuak eta antolatzaileak...

Gainera, kontuan hartu behar da ahozko testu transkribatuekin lanean ari ginenez, gure laginetako puntuazio-markak makina batek arbitrarioki esleitutako puntuazio-markak zirela. Horregatik, jakinik puntuazioak ez zigula identifikazio automatikoa egiteko aukerarik emango, puntuazio-marka guztiak ezabatzea eta etenak zehar-marren (/) bidez adieraztea erabaki genuen, transkripzio-irizpideak homogeneizatze aldera.

Horrenbestez, enuntziatu parentetikoak identifikatu eta kuantifikatu eta gero, modalizazio mota bakoitza bideratzen duten enuntziatu parentetikoaren kopurua kontabilizatu eta enuntziatu parentetikoaren bidez bideratutako modalizazio horien azterketa kualitatiboa egin genuen, jarraian erakutsiko dugun bezala.

4. Emaitzak

Eusko Legebiltzarreko 30 esku-hartzeak banan-banan aztertu eta gero, 239 enuntziatu parentetiko identifikatu genituen ahozko hizlarien ahozko ekoizpenetan. Dena den, kontuan hartuta aztertutako lagin gehienak (30etik 22) elebidunak zirela, enuntziatu parentetiko horiek hitzaldietan erabilitako bi hizkuntzetan aurkitu genituen: gehien-gehienak, euskaraz (238tik 195, hau da, % 81,93), baina gaztelaniaz ere aurkitu genituen batzuk (238tik 43, hau da, % 18,07).

Behin corpuseko enuntziatu parentetikoak identifikatuta eta kuantifikatuta, hurrengo urratsa bideratzen duten modalizazio motaren arabera kuantifikatzea izan zen, Bronckarten (1996/2022) sailkapenaren arabera. Hona hemen azterketa kuantitatibo horren emaitza:

Modalizazio mota	Kopurua
Modalizazio logikoa	53
Modalizazio deontikoa	13
Modalizazio apreziatiboa	144
Modalizazio pragmatikoa	84
Guztira	300

Emaitzek erakusten dute Eusko Legebiltzarreko esku-hartzeetako enuntziatu parentetikoaren bidez modalizazio mota guztiak bideratzen direla, baina maizen, eta alde handiarekin, modalizazio apreziatiboa, hau da, igorlearen iritzia eta ebaluazio pertsonalak agerian jartzearekin lotutakoa. Dena den, gainerako modalizazio guztiak ere bideratzen dira, ordena honetan: modalizazio pragmatikoa, modalizazio logikoa eta modalizazio deontikoa.

Arreta ematen duen beste datu bat guztira bideratutako modalizazio kopuruaren datua da; izan ere, goiko taulan ikusten diren zifren arabera, 238 enuntziatu parentetikoren bidez 300 modalizazio bideratzen dira. Ondorioz, datu horrek agerian uzten du enuntziatu parentetiko bakar batek modalizazio mota bat baino gehiago bidera dezakeela, adibideen bitartez erakutsiko dugun moduan.

Jarraian, modalizazio mota bakoitza eta modalizazio mota bat baino gehiago bideratzen duten enuntziatu parentetikoaren adibide bana erakutsi eta azalduko dugu. Enuntziatu parentetikoak letra lodiz markatuta daude.

Modalizazio logikoa

- (2) agian lortu dezake / gizartean salmenta e egitea / baina horraino / eta bukatu da / **edo bukatzeaz dago** / errentetatik bizitzea

Goiko adibidean enuntziatu parentetikoak bi aldiz eragiten du modalizazio logikoan edo hizlariak esandakoaren gainean duen ziurtasun-mailaren gainean. Lehenik, leundu egiten da enuntziatu parentetikoaren bidez oinarri-enuntziatuaren baieztapen indarra (*bukatu da > bukatzeaz dago*).

Hala ere, eta enuntziatu biak edo lokailu hautakariaren bitartez lotuta dauden arren, baieztapena leuntzen duen birformulazio hori itxurazkoa da, eta, hain zuzen, kontrako efektua eragiten du: etenen artean agertzeak intentsifikatu egiten du enuntziatu parentetikoaren bidez eragin nahi den efektua, eta indarra ematen dio bigarren enuntziatuari. Bigarren enuntziatu horren bidez, bada, ziurtasuna transmititzen da: hizlariak ziurtasun osoz daki egoera aldatu egingo dela, eta mehatxu estali gisa ere uler daiteke. Lehenengo leuntze-mugimenduaren bidez, hizlariak jarraian esango duenak hartzaileengan izan dezakeen efektu negatiboa arintzen du, eta irudia babestu. Aldiz, enuntziatu parentetikoaren bidez indartu egiten du bere posizionamendua. Fuentes Rodríguez-en (2010, 114. or.) arabera, leuntze- eta indartze-formak txandakatzea ohikoa da parlamentuko diskurtsoetan, eta hizlariak diskurtsoan duen inplikazioa handitzera daude bideratuta.

Modalizazio deontikoa

- (3) egia da / **eta hori ere argitu behar da** / e osasun publikoko estrategia eremuak bi hanka nagusi ditu

Adibide honetan, aurretik ere modalizazio logikoa bideratzen zuen oinarri-enuntziatua (*egia da*) indartu eta intentsifikatu egiten da enuntziatu parentetikoaren bidez. Gainera, argituko denaren beharra eta garrantzia azpimarratzen da, gizarte-arauetan oinarrituta. Kasu honetan, enuntziatu parentetikoaren helburua da hizlariak emandako argudioak indartzea.

Modalizazio apreziatiboa

- (4) alboratzen zituen baita ere / iaz / 2018ko Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan egindako EPEetan / ba epaimahaiak egin zuten txosten bat / **oso txukuna** / eta ondorioak eta gomendioak jasotzen zutena

Goiko adibidean, bereziki ondo ikusten da enuntziatu parentetikoak erreferentearen ostean eta erlatibozko perpausaren aurrean —eta ez beste inon— hausten duela oinarri-enuntziatuaren linealtasuna. Izan ere, horixe da enuntziatu parentetikoaren erreferentea (*txosten bat*), eta hor bakarrik txerta daiteke txostenari buruzko iruzkin bat jarraian datorren erlatibozko perpausa (*ondorioak eta gomendioak jasotzen zutena* [sic]) zapuztu gabe. Izan ere, enuntziatu parentetikoaren ostean, berriro ere heltzen zaio oinarri-enuntziatuari: *ba epaimahaiak egin zuten txosten bat* (sic) / (*eta ondorioak eta gomendioak jasotzen zutena* (sic)).

Kasu honetan, enuntziatu parentetikoak adberbio intentsifikatzaile batek eta adjektibo batek (*oso + txukuna*) osatutako iruzkin baloratzaila txertatzen du hizlariak, eta horrek hizlariaren iritziaren berri eman eta hartzailearen interpretazioa bideratzen du. Gainera, kasu honetan ere, gutxi egituratutako sintaxiak fokalizatu eta intentsifikatu egiten du enuntziatu parentetikoa.

Modalizazio pragmatikoa

- (5) lege-proposamenarekin / lortu nahi duguna da / **eta lortu nahi genuena da** / kontratazio publikoa (sic) lurzoru on bat jartzea / lurzoru on bat jarri / hortik aurrera funtzio publikoan bestelako kontratazio-eredu bat ezartzeko / eta funtzio publikoa garai berrietara egokitzeko

Bosgarren adibideko enuntziatu parentetikoak hizlariaren ustez lehen enuntziatuarekin argi geratu ez den ñabardura bat gehitzen du: zehazki, aditz-denbora aldatuta duen (*nahi duguna > nahi genuena*) errepikapen bat da. Gainera, emendiozko lokailu bat du hasieran, eta horrek erakusten du ez dela birformulazio hutsa, informazio garrantzitsu bat gehitzera dator. Ondorioz, enuntziatu parentetikoaren egiturak berak, errepikapenak eta emendiozko lokailuak indartu egiten dute argumentazioa. Esanahiari erreparatuta, argi uzten du hizlariak ez duela bere posizioa edo jarrera aldatu, lehendik zeukaten helburu edo asmo bera mantentzen dutela oraindik ere. Talde sozialaren ahotsa ordezkatzeko, eta bere posizioa indartzeko balio du.

Modalizazio bat baino gehiago bideratzen duten enuntziatu parentetikoak

- (6) zeren badirudi / e balizko lege berriak / e hezkuntzan dagoen arazoa konponduko duela / edo eta balizko / lege berriaren izenean / arazoei ihes egin nahi da / zeren / momentu honetan / e legez / **balizko lege horren izenean** / indarrean dagoen eredu pribatitzatzailea / egonkortzen ari da

Seigarren adibidean daukagun enuntziatu parentetikoaren bidez bi modalizazio mota bideratzen dira: modalizazio apreziatiboa eta modalizazio pragmatikoa.

Batetik, *balizko* adjektiboa dago, hizlariak legeari lege-izendapena eman dakioken ere zalantzan jartzen duela agerian jartzen duena. Aditzera ematen du bere ustez *lege* deitzea ere ez lukeela mereziko, eta argi eta garbi, hartzaileen interpretazioan eragin nahi du. Bestalde, modalizazio pragmatikoa ere bideratzen du, gobernuari esleitzen baitio egin duen lege horren bidez ihes egiten saiatzeko nahia edo asmoa.

5. Ondorioak

Fuentes Rodríguezek (1999) gaztelaniaz eta Andaluziako Parlamentuko diskurtso parlamentarioetan egin zuen bezalaxe, enuntziatu parentetikoak Eusko Legebiltzarreko esku-hartzeetan ere identifikatu ditugu bi hamarkada baino gehiago eta gero. Beraz, horrek iradoki dezake enuntziatu parentetikoan agerpena testu-generoari lotutako erregularitasuna izan daitekeela, aztertutako bi hizkuntzetan —euskaraz eta gaztelaniaz— eta bi parlamentuetan —Andaluziako Parlamentuan eta Eusko Legebiltzarrean— identifikatu baitira. Ildo horretan, aipatzekoa da ez dirudiela hizkuntzaren estatusak —gutxitua edo hegemonikoa— eraginik duenik enuntziatu parentetikoan agerpenean.

Testu-generoarekiko harreman hori Azpeitiak (2010a, 764. or.) ere identifikatu zuen Mitxelenak euskaraz idatzitako testu ezberdinetan, enuntziatu parentetikoagoak maizago aurkitu baitzituen iritzi-artikuluetan, iruzkin-testuetan eta kazeta-zutabeetan beste testu-genero batzuetan baino. Hala ere, Azpeitiak (*idem*) berak aitortzen du interesgarria litzatekeela Mitxelenak gaztelaniaz idatzitako testuak ere arakatzea, enuntziatu parentetikoak modu berean erabiltzen dituen ala ez ikusteko. Kasu honetan, eta aurretik esan bezala, ez dirudi parlamentuko esku-hartzeetan enuntziatu parentetikoan erabileran alde nabarmenik dagoenik euskararen eta gaztelaniaren artean.

Modalizazioari dagokionez, azterketan agerian geratu da enuntziatu parentetiko guztiek bideratzen dutela, gutxienez, modalizazio mota bat. Are gehiago, azterketa kuantitatiboaren eta kualitatiboaren bidez ikusi dugu enuntziatu parentetiko askok modu batera baino gehiagotara modalizatzen dutela diskurtsoa. Horrek erakusten du ahozkoan aktibatzen diren enuntziatu parentetikoek oso kokapen egokia eskaintzen dutela euskarazko diskurtso parlamentarioa modalizatzeko. Ildo horretan, lehenago ere aipatu da sarritan zaila dela diskurtsoa non modalizatuko den aurreikustea; hala ere, enuntziatu parentetikoan eragin modalizatzaileei buruzko emaitzek iradokitzen dute enuntziatu parentetikoak modalizazioaren agertokitzat jo daitezkeela, eta, ondorioz, aukera ematen dutela —aukera mugatua bada ere— modalizazioa non gauzatuko den aurreikusteko.

Gainera, enuntziatu parentetiko guztiek diskurtsoan eragin modalizatzaileak izateak erakusten du, monologikoa izan arren, esku-hartzean interakzio komunikatiboak sortzen direla, eta, horrenbestez, ekintza komunikatibo dialogikoa dela, hizlariak norabidetu egiten duelako hartzaileak egin beharreko interpretazioa.

Ez hori bakarrik, ahozkoaren bat-batekotasunaren adierazle ere badira enuntziatu parentetikoak, itxura batean behintzat, ez-planifikatuak direlako. Horregatik, espon-

taneotasuna ematen diote aurretiaz idatzita dagoen testu batean oinarritutako ahozko formalari. Oinarri gisa erabiltzen den testu idatziaren presentziak, hortaz, bi modutara eragiten dio enuntziatu parentetikoan erabilerari: batetik, litekeena da ahozkoan agertzen diren enuntziatu parentetikoetako batzuk idatzizko testuan bertan agertzen diren enuntziatu parentetikoak ahoz esatearen emaitza izatea, hizlariak osorik edo partzialki irakurtzen duelako aurretiaz prestatutako testua. Hala ere, bestalde, enuntziatu parentetikoan erabilera ahozkoaren bat-batekotasunari eta unean uneko behar komunikatiboei erantzuteko modu bat ere izan daiteke, hizlariak esaten —irakurtzen— ari zena eten eta momentuan gogora etorri zaiona aurreko enuntziatua esaten amaitu gabe txertatzen duenean. Hori momentuko interakzioan sortzen zaizkion behar komunikatiboei erantzuteko egingo luke, ziurrenik.

Azpeitia eta Pérez Gaztelu (2014b, 31. or.) ere ondorio berera iritsi ziren azterketa kontrako bidetik —hau da, idatzizko testuetatik— abiatuta: «Garbi dago bi muturretako efektuak sortzeko estrategia izan daitekeela: bat-batekotasunaren eta hausnarketarik ezarena batetik, eta ongi baino hobeto hausnartu izatearena bestetik».

Modalizazio motei erreparatuta, aldiz, agerian geratu da aztertutako parlamentuko esku-hartzeetan modalizazio apreziatiboa gailendu dela, hau da, igorleak egiten dituen balorazio subjektiboak. Horrek lotura estua izan dezake ordezkatzeko duen taldearen irudia (endotaldea) irudi ona eraikitzearekin, aurkari gisa aurkezten diren gainerako taldeetako (exotaldea) kideen aurrean.

Edonola ere, aipatzekoa da gainerako modalizazio guztiak ere —deontikoa, logikoa eta pragmatikoa— bideratzen dituztela parlamentuko esku-hartzeetan identifikatutako enuntziatu parentetikoek, eta, beraz, argi dago oso elementu modalizatzaileak direla eta protagonismo handiagoa eman beharko litzaiekeela oinarrian testu idatzia duten ahozko formalen azterketan, egoera horretan agertzen baitira maizen.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Azpeitia, Agurtzane (2010a). *Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak* [Doktore-tesia. Deustuko Unibertsitatea]. Euskarazko doktorego-tesiak. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Agurtzane_Azpeitia_TESIA.pdf
- Azpeitia, Agurtzane (2010b). Enuntziatu parentetikoak: Koldo Mitxelenaren intentzio ironikoaren ispilu. *Gogoia*, 10(1 eta 2), 21-54. <https://ojs.ehu.eus/index.php/Gogoia/article/view/3486/4236>
- Azpeitia, Agurtzane (2011). Koldo Mitxelenak bere diskurtsoan estrategikoki integratzen ditu enuntziatu parentetikoak. *Euskera*, 56(3), 791-832. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/75992.pdf>
- Azpeitia, Agurtzane (2012). *Koldo Mitxelenaren zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak*. Euskaltzaindia.
- Azpeitia, Agurtzane eta Pérez Gaztelu, Elixabete (2014a). Bigarren mailako puntuazio-marken azterketa: Koldo Mitxelenaren liburu- eta zinema-kritiketako enuntziatu parentetikoan muga grafikoak. *Senez*, 45, 169-188. <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20141028/12azpeitiaperez>

- Azpeitia, Agurtzane eta Pérez Gaztelu, Elixabete (2014b). Ahozketasunaren printzak Koldo Mitxelenaren enuntziatu parentetikoetan. In Itziar Aduriz eta Ruben Urizar (argtz.), *Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro: Hizkuntzalari Euskaldunen I. Topaketa* (29-48. or.). UEU.
- Blakemore, Diane (2005). And-parentheticals. *Journal of Pragmatics*, 37, 1165-1181. <https://doi.org/10.1016/j.pragma.2005.04.003>
- Blakemore, Diane (2006). Divisions of labour: The analysis of parentheticals. *Lingua*, 116, 1670-1687. <https://doi.org/10.1016/j.lingua.2005.04.007>
- Bronckart, Jean-Paul (1996). *Activité langagière, textes et discours*. Delachaux et Niestlé [Bigarren edizioa: Bronckart, Jean-Pierre (2022). *Activité langagière, textes et discours*. Lambert-Lucas].
- Bustos, Jose Luis. (1997). Aspectos semánticos y pragmáticos de la comunicación oral. In Antonio Briz, Jose Ramón Gómez eta Maria José Martínez (argtz.), *Pragmática y Gramática del español hablado* (37-49). Universitat de València eta Libros Pórticos.
- Calvo-Rigual, Césareo eta Spinolo, Nicoletta. (2016). Traducir e interpretar la oralidad, *MonTI: Monografías de traducción e interpretación*, 3, 9-32. <https://doi.org/10.6035/MonTI.2016.ne3.1>
- Euskaltzaindia (2018). Eranskinak. Puntuazio-markak. In *Euskara Batuaren Eskuliburua* (467-478. or). Euskaltzaindia. file:///C:/Users/TR61/Downloads/EBE-eranskinak.pdf
- Euskaltzaindia (2021). 10.4.2. Modalitatea adierazteko bideak. In *Euskararen Gramatika* (330-331. or). Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/83272-1.pdf#page=1
- Eusko Legebiltzarreko Erregelamendu Kontsolidatua (2024ko ekainak 24). https://www.legebiltzarra.eus/portal/documents/16182/1839684/Erregelamendua_kontsolidatua_2021_02.pdf/ec90695c-5aa2-4be7-a21c-b05f33297b8e
- Fuentes Rodríguez, Catalina (1999). Lo oral en lo escrito: los enunciados parentéticos. *Moenia*, 5, 225-246. <https://idus.us.es/bitstreams/ee451370-ba30-4319-8e15-cb76d628bb58/download>
- Gadet, François (1996). Une distinction bien fragile: écrit/oral. *Travaux neuchâtelois De Linguistique*, 25, 13-27.
- Garro, Eneritz (2008). Diskurtso erreferituaren erabilera jendaurreko debateetan. *Gogoia*, 8(1), 26-61. <https://ojs.ehu.es/index.php/Gogoa/article/view/3502/3132>
- Koch, Peter eta Oesterreicher, Wulf ([1990] 2007). *Lengua hablada en la Romania: español, francés, italiano* [Araceli Lópezen bertsioa]. Gredos. <https://archive.org/details/koch-peter-oesterreicher-wulf.-lengua-hablada-en-la-romania.-espanol-frances-italiano-2007>
- Larringan, Luis Mari (1998). Testuen analisirako zenbat nozioren kontzeptualizazio bidean. In Itziar Idiazabal eta Luis Mari Larringan (argtz.), *Koherentzia, Kohesioa eta Konexioa. Testuratzeko Baliabideak. Hizkuntzaren Azterketa eta Irakaskuntza* (11-46. or). Euskal Herriko Unibertsitatea eta Arabako Foru Aldundia.
- Pérez Serrano, Nicolás (2018). La oratoria en el parlamento. *Revista de las Cortes Generales*, 103(lehenengo lau hilabetea), 591-634. <https://revista.cortesgenerales.es/rcg/article/download/118/111/>
- Romero, Alejandro (2018). *El humor en el discurso parlamentario: análisis pragmalingüístico de los debates de la Asamblea de Madrid* [Doktorre-tesia]. Madrilgo Konplutense Unibertsitatea. Docta complutense. <https://docta.ucm.es/entities/publication/a7d39395-9fb6-4a67-b194-e6d61849fb82>

- Schäffner, Claudia (1997). Strategies of Translating Political Texts. In ANNA Trosborg (artz.), *Text typology and translation* (119-144. or.). Jonh Benjamins.
- Tusón, Amparo eta Calsamiglia, Helena (1999). *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Ariel.
- Van Dijk, Teun Adrianus (2001). Texto y contexto de los debates parlamentarios. *Tonos Digital*, 2, 1-35. <https://digitum.um.es/digitum/bitstream/10201/39831/1/Texto%20y%20contexto%20de%20los%20debates%20parlamentarios%201.pdf>
- Van Dijk, Teun Adrianus eta Rodrigo Mendizábal, Ivan (1999). *Análisis del discurso social y político*. Ediciones ABYA-YALA. https://digitalrepository.unm.edu/cgi/viewcontent.cgi?referer=&httpsredir=1&article=1414&context=abya_yala

